

MEMORIAZ

Isildutako eskuak eta La tribunatik abiatuta bidaiari ekin genion amonen, izeben, bizilagunen oroitzapenak plazaratzeko. Sukalde askotara gonbidatu gintuzten preziatuen altxorra gurekin konpartitzeko: hunkituta mirestu dugu beraien indarra, trebezia, ardua, lana ondo egiteko premia, ausardia...Bitakora koaderno dizdiratsuetan, elkarbizitza giroan, jantzi gaituzte, erakus leihoetako estetika landuan erosle bihurtuz, bai kontuak eramaten erakutsi bai idazmakinetan lan finak burutu ondoren, Arrue kotxeetan paseatu gaituzte, ez bakarrik ondo datozen koloreak ezkonduz, baita erreginen pareko lurrinak ere...Noski, hau dena, donostiar igande goizetako usain eta txokolate zaporeekin omenduz.

*Gertuago, hurbilago, ezin dugu ahaztu Suchard saria ez eta sugusen dastaketak, beraien azaltxoekin egindako koadernoak, origamiak eta, duela gutxi, bi munduak eta garaiak lotzen dituen margotutako murala, gure San Telmo Museoak txokolatera berdiseinatzean egin zuen bezala. **Inoiz ez da berandu.***